

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 30 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai dira eta guztira 34 item. • Lehenengo ariketan item bakoitzak 0,4 puntu balio du eta gainerakoetan 0,8. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.700 hitz gehienez. 	50-60 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	90 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

EUSKADIKO ADIKZIOEN ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEA

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua buru zela egin da gaur goizean, Vitoria-Gasteizen, Euskadiko Adikzioen Erakunde arteko Koordinazio Batzordea **1** bilera. Batzorde horretan parte hartuko dute Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek, eta hemendik aurrera euskal administrazio publikoak koordinatzeko, elkarlanean jarduteko eta parte hartzeko organo **2** izango da, betiere Euskadiko Adikzioen eta Droga Mendetasunen Arreta Integralari buruzko Legea aplikatzearen ondoriozko jardunetan. Duela urtebete aho batez onartu zuen Eusko Legebiltzarrak lege hori.

Lege horren VI. Tituluan aurreikusten den Erakunde arteko Batzordearen sorrerak eraginda, desagertu egin da aurreko Sail arteko Batzordea, Eusko Jaurlaritzako sailez soilik osatuta zegoena. Foro berrian, Eusko Jaurlaritzarekin batera, foru aldundiek eta udalek ere hartuko dute parte. Gaurko bilerara **3** dira –Legearen eraginpean dauden Eusko Jaurlaritzako sailez gain– Gipuzkoako Gizarte Politiketako foru-diputatua, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Inklusioko zuzendaria, Leioako alkatea –EUDEL Euskadiko udalen elkartearen **4** –, eta Euskadiko udal batzuk.

Gaur eratu den Batzordea Euskadiko Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Arreta Integralari buruzko Legea onartu eta lehen urtebetetzearen bezperan sortu da. **5**, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak nabarmendu nahi izan du gaur egun indarrean jarraitzen dutela arau hori eragin zuten arrazoiek eta legearen helburuak: “banako bizi-ohituretan aldaketak **6**, euskal gizartean pertsonen osasuna hobetzeko”. Tabakoari dagokionez –gertakari gehien eragiten duen arloari erreparatuta, **7** –, lehenbiziko urtebete honetan 300 salaketa baino gehiago egon dira; Tabakoaren Aurkako Legea indarrean sartu zenetik (2011. urtetik) hona, **8**, milatik gora.

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak adierazi duenez, Euskadik eta bertako administrazioek osasunaren eta ongizatearen aldeko apustu **9** egin dute, eta Euskadiko 2013-2020 Osasun Planean –*Osasuna, Pertsonen Eskubidea, Guztion Ardura*– gauzatu da apustu hori. “Duela urtebete –nabarmendu du– beste aurrerapauso bat eman genuen, batez ere adingabeen babesari dagokionez. Bagenekien oso errotuta dauden erabileren eta ohituren alorrean sartzan ginela eta ez zitzaigula bide erraza egingo; baina, pertsonen osasuna arriskuan dagoenean, ezin dira ohitura horiek **10**, ezta merkataritza-interesak ere. Arauak eta, zehazki, lege hori lagungarriak izan daitezke, eta izan behar dute, euskal herritarren osasuna hobetzeko eta Euskadi osasuntsuagoa eraikitzeko; eta ziur nago hala izango direla” eman du aditzera.

Erakunde arteko Batzordearen zeregina **11** izango da. Izan ere, adikzioen inguruko jarduna zeharkako gaia da, osasunean ez ezik, beste arlo batzuetan ere eragina baitu, **12**, hezkuntzan, kulturen, gazterian, kirolean, gizarteratzean, politika komunitarioan, lan-osasunean, etxebizitzan, ingurumenean, segurtasunean, justizia-administrazioan, espetxeetan, publizitatean eta hedabideetan. **13**, koordinazioa eta parte-hartzea bideratuko duten tresnak funtsezkoak izango dira aurrera egin dezan adikzioen arloan inplikaturik dauden **14** funtzionamendu koordinatuak, bateratuak, eraginkorrak eta efizienteak.

Euskadik ibilbide luzea du adikzioen eta droga-mendekotasunen aurkako borrokan. Lehen ekimenak 80ko hamarkadan jarri ziren abian, orduan sortzen ari zen drogen kontsumoaren problematikari erantzuteko. **15**, hiru hamarkada hauetan, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek, beste erakunde eta elkarte batzuekin koordinatuta, arlo horretako **16** eta araudia garatu dute, eta errealitate berriei erantzun diete. Gainera, erakundeek, sailek eta agenteek gai konplexu horren arloko koordinazioa sendotzeko egitura eta foro formalak **17** dituzte. 1982. urtean droga-mendekotasunen arloko lehen jardun-plana aurkeztu zenetik, eta, bereziki, 1987. urtetik aurrera,

Euskal Autonomia Erkidegoan guztira droga-mendekotasunen edo adikzioen arloko sei plan garatu dira, baita udal- edo foru-plan ugari ere. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko 45 **18** erakundek dituzte adikzioen prebentzio komunitarioko teknikariak edota adikzioen arloko planen bat. Hortaz, 1.700.000 euskal herritarrek baino gehiagok dituzte prebentzio-zerbitzu horiek eskura.

< www.irekia.euskadi.eus>, 2017ko apirilaren 5a. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

- | | | |
|--|--|--|
| 1. a) birrintzeko
b) eratzeko
c) erdiesteko
d) gaitzesteko | 2. a) isolatua
b) baztertzailea
c) gorena
d) jasotzailea | 3. a) bertaratu
b) hedatu
c) uztartu
d) barreiatu |
| 4. a) aurkari
b) agintari
c) ikuskari
d) ordezkarri | 5. a) Aitzitik
b) Haatik
c) lldo horretan
d) Dena dela | 6. a) birmoldatzea
b) ernegatzea
c) sustatzea
d) urritzea |
| 7. a) alegia
b) hala ere
c) ostera
d) izan ere | 8. a) berriz
b) alabaina
c) hots
d) laburbilduz | 9. a) antzua
b) pattala
c) irmoa
d) zorrotza |
| 10. a) erantsi
b) lehenetsi
c) ebatsi
d) hertsia | 11. a) oztopo
b) ganora
c) oihartzun
d) giltzarri | 12. a) hala nola
b) behinik behin
c) dena den
d) batez beste |
| 13. a) Azkenik
b) Hori dela eta
c) Haatik
d) Oraingoz | 14. a) eramaileen
b) hornitzaileen
c) eragileen
d) hautesleen | 15. a) Oraindik ere
b) Halabeharrez
c) Hargatik
d) Orduz geroztik |
| 16. a) agintaritza
b) plangintza
c) langintza
d) hirigintza | 17. a) ezarri
b) ustiatu
c) artatu
d) urratu | 18. a) ordezko
b) tokiko
c) inguruko
d) zeharkako |

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

MERKATU KANIBALEAN TXIROEN GORPUTZAK SALGAI

Gammy txikiak zorte txarra izan duela esango dute. Thailandian sabel alokatuan sortua, amari laga zioten bere erosle senar-emazte australiarrek, beraiekin eramanda Pipah, Gammyren arreba bikia. Down sindromea dauka Gammyk, eta guraso australiarrek esan omen zuten haiek ez zutela hainbeste diru ordaindu haur *anormal* batekin etxeratzeko. Ama alokatu gazteak prentsara laguntza eske jo zuenean zabaldu zen albistea, etxean Gammy mantentzeko ez baitzuten dirurik. Pipah bikia Australian bizi da, guraso legalekin. Jean-Daniel Rainhorn mediku frantsesak Suitzako Genevan giza gorputzaren merkantilizazioaz egindako sinposioan kontatu du Gammyren istorioa eta bertan aurkeztu du “*Merkatu kanibal berriak: Globalizazioa eta giza gorputza merkantzia bihurtzea*” ikerlana.

Merkatu berriok, dio Rainhorn doktoreak, indartu dira badaudelako giza gorputzen atalen bai eskaria eta bai eskaintza. Horretan eragina izan dute medikuntzan teknologia berriek egindako aurrerapenak, neoliberalismoak, mundializazioak eta Internetek. Gurpil handi horretan funtsezkoa da medikuen esku-hartzea, Rainhornek salatzen duenez, “Hipokratesen zina ahaztu duten medikuen saldukeria”. *Le Monde* egunkariari emandako elkarrizketan laburbildu duenez, nazioarteko erakundeek ere ez dute zehaztasun osoz ezagutzen merkatu kanibal berri hau, zeren eta txiroen gorputzak aberatsen osasunaren edo ongizatearen zerbitzuan jartzen dituen negozio erraldoia aldi berean ari baita legalitate barruan eta kanpoan, eta zati handi batean kriminalitatearen eremuan.

Emakumeen sabelen alokatzea nola ugaritu den ohartzeko datua: 2014an, Indian soilik, 5.000 haur jaiotzen ziren horrela, 2.000 milioi euroko negozio-bolumena mugiaraziz. Alokairuzko haurgintza legezkoa den Kalifornian, 2008an, 1.400 ume kontabilizatu ziren, eta bost urtean kopurua bikoiztu egin zen.

Organoen trafikoaren tamainaz, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) dio 2005ean 66.000 giltzurrun txertatu zirela, % 10 edo % 20 legez kanpo; beraz, 6.000 baino gehiago. Bio-bankuei dagokienez, obuluen merkata azaltzean, Rainhornek beti aipatzen du Bartzelona dela Europako hiriburu nagusia. Bertan gauzarik arruntena balitz bezala

egiten dira obuluak biltzeko kanpainak –800 euro eskainiz– unibertsitateko neska gazteen artean eta gero horiekin egiten dituzte in vitro ernalketak mundu osotik etorritako emakumeentzat.

OMEk babestutako ikerketak ez du ahazten *medikuen lapurreta*. Hainbat herrialdetan, estatuiek sendagileen formakuntzan dirutza inbertitu ondoren, ikusten dute herrialde aberatsek eramaten dituztela mediku horiek, beren sorterrietan behar-beharrezkoak badira ere. Adibide bat: Britainia Handian, osasun-zerbitzu publikoak emandako datuen arabera, 2015ean ari ziren 100 medikutatik 26 kanpoko herrialdeetatik etorriak ziren.

Baina zer da legala eta noraino? Organoen txertaketan ikusi da, Rainhornen hitzetan, hartzailari lege txertatuko zaion organoa, sarritan, modu ilegalean izan zaiola erauzia beste bati. Legez gain, gainera, justizia dago: horrelako salmenta tartean dagoenean, beti ahulenak dira saltzaile, txiroen artean txiroenak. “Esklabotza berri bat daukagu begien aurrean, gorputzaren proletariora, zeinetan gizadiaren parte batek bere soina saldu behar baitu beste batzuk bizi daitezen”. Eta edozein salgairekin gertatzen den bezala, eskariak eta eskaintzak arautzen dute prezioa. *Der Spiegel*-ek argitaratu berria du errefuxiatu siriarentzat Libanoko kanpalekuan giltzurrunaren prezioa jaitsi egin dela 3.000 eurotik 700era. Prostituziora behartutakoaren tarifak merkatu diren moduan, *saltzaileak* hain daude behar handian...

Baina doako donazioak eskaintzen dituzten ehun-bankuek ere mesfidatzen dira Rainhorn eta beste adituak. “Kontua da zuk doan ematen duzuna gero enpresek saldu egiten dutela. European, esaterako, badago giza ehunen banku bat armada guztien hornitzailea dena eta dagoeneko ordainduzkoa dena. Baina ez du merezi eskandalizatzea, gauzak okerragotu egingo direlako”. Eta Rainhornek geneen bio-bankuak aipatzen ditu, genoma-sekuentziak saltzen dituztenak; hots, etorkizuneko haurren ezaugarri fisikoak aldatzea ahalbidetuko dutenak, adibidez, ilearen edo begien koloreak. Hurbiltzen ari ote gara Yazuo Ishigurok 2005ean bere nobelan irudikatu zuen mundura, non haur klonatuak barnetegi batean zaintzen dituzten, gero beren organoak, behar orduan, haur *normalei* txertatzeko? Adituek Rainhornen

ikerlanarekin lortu nahiko lukete halako haserretu taldeak mobilizatzea, nazioarteko erakundeek gaia serio hartu eta Giza Eskubideen Itunean zehazki aipatua izan dadin. Jean-Daniel Rainhorn: “Joko-arauak aldatzen ari dira, osasungintzako teknologiek errotik aldatu dute gaixoaren eta sendagilearen arteko harremana bera ere. Gizartearen deshumanizatzea iritsi da medikuntzaraino”.

ZUBIRIA P. *Argia*, 2016ko urriaren 23a. Egokitua

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

19. Zer salatu nahi du mediku frantsesak Gammyren kasuarekin?

- a) Thailandian Down sindromea duten umeen egoera.
- b) Txiroen gorputzaren merkantilizazio basatia.
- c) Emakumeen sabelak alokatzearen eragozpenak.

20. Zer hartzen du funtsezkotzat Rainhornek auziari aurre egiteko?

- a) Merkatuan eskaririk eta eskaintzarik ez egotea.
- b) Teknologien aurrerapenak horretarako ez erabiltzea.
- c) Medikuek ez arbuatzea zin egindako printzipioak.

21. Zergatik ez dute nazioarteko erakundeek zehaztasunez merkatua ezagutzen?

- a) Merkatua erraldoia denez, tamaina ez dagoelako jakiterik.
- b) Erakundeek beste alde batera begiratu nahiago dutelako.
- c) Legalitatearen eta ez-legalitatearen arteko muga oso estua delako.

22. Zer adierazten dute datuek?

- a) Ia ez dagoela legez kanpoko giltzurrun-transplanterik.
- b) Normaltzat hartzen dela Bartzelonan “obuluen merkatua”.
- c) Haurgintza legezkoa den lekuetan kopuruak hirukoiztu egin direla.

23. Zer dio Rainhornek legezketasunez?

- a) Maiz transplantea legala izanda, organoa lortzeko bidea ilegal dela.
- b) Justizia egon badagoela, baina lekuaren arabera ezartzen dela.
- c) Urriak direla organoen txertaketa eta erauzketa legalak.

24. Zer ondorio atera daiteke organoen merkatutik?

- a) Esklabotza berria ekarri duela merkatu horrek.
- b) Prezioa ez dela ohiko salgaietan bezala arautzen.
- c) Organoak behar dituztenak direla ahulen artean ahulenak.

25. Zer uste du Rainhornek ehun-bankuez?

- a) Jendeak doako donazioak egiten dituzenez, ez dutela onurarik.
- b) Gauzak okerragotu egingo direla, European dagoen banku ezagatik.
- c) Ez direla erabat doakoak, giza ehuna saldu egiten dutelako.

26. Zer lortu nahiko lukete ikerlanarekin?

- a) Gaixoen eta sendagileen arteko harremanak errotik aldatzea.
- b) Nazioarteko erakundeek gaia aintzakotzat hartzea, besteak beste.
- c) Herritarren artean eragindako haserrealdiak baretzea.

3. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu testu zatia dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (27, 28, 29...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

ARRAKASTA

Akats egitea gaitasun faltarekin lotu ohi bada ere, badira hanka-sartzearen balioa aldarrikatzen dutenak, arrakasta lortzeko ezinbesteko urratsa den neurrian. Akatsak mingarriak, lotsagarriak, deserosoak, traumatikoak eta abar izan daitezke, eta izaten dira. Bada, ordea, huts egitearen aldarria egiten duenik, baita okerrak gorazarrea merezi duela dioenik ere, ikasteko bide bakarra eta gizatasunaren muineko ezaugarria dela iritzita.

27

Errorismoaren adibide izan daitezke, esaterako, munduan geroz eta ugariagoak diren *Fuck Up Nights* topaketak. Porrot-istorioak kontatzeko hitzaldiak dira, eta huts egitetik ikasitakoak gerora zein baliagarri izan diren kontatzen diete elkarri parte-hartzaileek. Mundu zabaleko hiri askotan antolatzen dira, eta Euskal Herrian ez dira arrotzak. Donostiako Tabakaleran egiten dituzte *Fuck Up Nights* topaketak, hiru hilean behin eta antolatzaileek azaldu dutenez, helburua mugimendua eratzea da, eta, horrekin batera, gizartean porrotaren inguruan dauden beldurrak kentzea. 28 Negozio bat edo bikote harreman bat oso ondo zihoanean, erraz hitz egin zezaketen; baina ohartu ziren egoera kontrakoa zenean arazoak ezkutatzeko joera izaten zela. Orduan hasi ziren hilean behin *Fuck up Nights* izeneko ekitaldiak antolatzen, porrotari buruz hitz egiteko.

Donostian, aurren, lau topaketa egingo dituzte. Hizlariak aurkitzea ez da kontu erraza izaten, jende askok oraindik ez baitu bere akatsei buruz hitz egin nahi. Donostiako topaketen antolatzaileen ustez, akatsak egiten dituenari buruz gizartean dagoen ideia okerra da eta hori aldatu nahi dute.

29

Fuck Up Nights topaketetan bildutako esperientziek huts egitearen balioa frogatzen dutela uste dute. Gehienek esaten dute porrotari esker izan dutela arrakasta hurrengo proiektuetan, porrotak beste begirada bat eskaintzen duela, beste egiteko modu bat. 30

Internazional Errorista 2005ean sortu zen, Buenos Airesen. Elkarrekin bere webgunean (www.erroristas.org) adierazten duenez, *errorismoa* mugimendu kultural, teknologiko, zientifiko, politikoa eta espirituala da, eta bere jardura akatsean oinarritzen du. *Internazional Erroristako* kide Franco Berardi filosofo italiarraren esanetan, akatsa da aurrerabiderako modu bakarra algoritmoen errepikapen infinituaren garai honetan. 31

Akatsak ondorio larriak izan ditzake hanka-sartzearen tamainaren arabera, eta zentzuzkoa da, beraz, desiragarria ez izatea. Hala ere, dramatikoak izan ez arren, zenbaitetan akats egitea esperientzia mingarria izan ohi da. Bi zergati nabarmendu ditu Cesar San Juan EHuko psikologia irakasleak: erabaki arrazionalak hartzeko gaitasuna neurritz gain balioztatzea eta besteen nahiei erantzuteko presioa. Hanka sartzen dugunean sentitzen dugu ez ditugula egoeraren aldeko eta kontrako ezaugarriak ongi neurtu, ez garela horretarako gai izan. 32 Harrigarria gerta daitekeen arren, San Juanek nabarmendu du ez dela horren arraroa bizitzeko esperientziarik onenak erabaki okerretatik eratorritakoak izatea; bikote harremanen porrotetatik edo gertakari traumatikoetatik, esaterako. 33 San Juanek dioenez, hutsegiteek eskain ditzaketen aukerak baliatzeko, jarrera optimista izatea da gakoa. Badira frustrazioan gelditzen diren pertsonak, eta porrot-sentimenduari helduta atsegin hartzen dutenak; baina zailtasunen aurrean jarrera positiboa izateko gaitasuna landu egin daiteke. Horrek ahalegina eskatzen du, epe motzean katartikoagoa baitirudi hartutako erabaki okerrenengatik norberaren burua zigortzeak.

Oker jardutea zuzen aritzearen kontrakoa da, eta bi kontzeptu horiek banaezinak dira. Beti doaz bata besteari itsatsita. Begi bistako kontua da, baina ideia horri tiraka atera daitezkeen ondorioak ez dira beti horren agerikoak. Agustin Arrieta

EHUko filosofoaren esanetan, esparru zuzen jakin batean akatsa egin daitekeela onartzen denean, aitortzen dugu badagoela egiteko bide zuzen bat. **34** Horiek esaten dute ez dagoela araurik eta, beraz, ez dagoela esaterik zerbait ongi edo gaizki egin dugun. Arrietak azaldu duenez, araurik ez onartzeak bezala, akatsei neurritz gaindiko beldurra izateak ere ondorio latzak ekar ditzake. «Segur aski, emaitza paralisia da eta ez genuke ezer ere egingo».

BERASATEGI, G. *Berria*, 2017ko urtarrilaren 25a. Egokitua

3. ariketa. Txertatu testu zatia

- A.** Batzuek diote ez direla hurrengo egunean hasi proiektu berri batekin, denbora behar izan dutela esperientziari buelta emateko, eta zaila egiten dela; baina, beste proiektu bat aurkitu dutenean, motibazio handiz heldu diotela.
- B.** Horri deitzen zaio ekintza ona, edo egia, eta bi elementuak presente daudenean, esan nahi du esparru horretan arau batzuk daudela onartzen dugula, baina ideia horren aurka daude filosofiaren korrante eszeptikoa eta zinikoa.
- C.** Beraz, esandako guztiaren arabera, *errorismoaren* oinarrian pertsonen portaeren hausnarketa sakona egon behar da, berriro akatsik ez egiteko edo, eginez gero, traumarik ez izateko.
- D.** Mexikon du jatorria mugimendu horrek. 2012an hasi zen, trago batzuk hartzeko elkartzen ziren lagun batzuk konturatu zirenean oso gutxi hitz egiten zela porrotei buruz.
- E.** Horrez gain, senti dezakegu besteek gugandik espero zutenari huts egin diogula. Oso garrantzitsua da kontuan hartzea batzuetan ezinezkoa dela erabaki erabat arrazionalak hartzea, kasu horietan bihotzari entzutea komeni da.
- F.** Oraindik izen ofizialik ez duen arren, akatsen alde emankorra nabarmentzen duten diskurtsoak edo oker aritzearen onura defendatzen dutenenak izendatzeko kontzeptu bat ari da zabaltzen, pixkanaka: *errorismoa*.
- G.** «Pentsatu ohi da porrot egiten duena ez dela gai gauzak egiteko, baina gure ideia justu kontrakoa da: saiatsen denak ikasten du, eta, berriro aukera duenean, hura izango da hobeto egiteko gai izango dena».
- H.** «Maitaleari bidali nahi zitzaion mezua bikotekideari bidaltzeak hasieran ondorio traumatikoak izan baditzake ere, luzera, bien arteko arazoak argitzera behartu ditzake, eta egiaz zoriotsu izateko aukera zabaldu».
- I.** Akatsa da giza komunikazioa makineria digitaletik aska dezakeen bakarra, akatsak bakarrik salba dezake gizadia perfekzio digitaletan oinarritutako testuinguru tekniko eta sozialetik.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	27	28	29	30	31	32	33	34
Testu zatiak								

Soberakoa

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.
Gutxienez 180 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Udal handi bateko langilea zara. Harreran lan egiten duzu.

Udalak, aspaldiko partez, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko asmoa du. Herritar asko doakizue informazio eske. Horretaz arduratzen den langilea bajan dago eta herritarrek zuri galdetzen dizute. Zuk egitasmoaz ez dakizu gehiegi eta haserrealdiak eta modu txarrak jasaten dituzu egunero.

Saileko arduradunari gutun bat idaztea erabaki duzu. Azaldu zer gertatzen den, salatu pairatzen ari zaren egoera eta jakinarazi arazoa konpontzeko irtenbideak.

2. ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako

- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

EGOERA: Udaltzain izateko oposizio batean 59 urteko hautagaia aurkeztu izanak berriro eztabaidagai jarri du Administrazioako zenbait lanpostutan gehieneko adinik egon behar den ala ez.

Berriak izan duen oihartzuna ikusita, zeure iritzia herriko aldizkarian argitaratzea erabaki duzu.

GAIA: EGON BEHAR DU ENPLEGATU PUBLIKO IZATEKO GEHIENEKO ADINIK?

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, langile publikoek ez dute inolako bereizkeriarik jasoko jaiotza, arraza, genero, sexu edo adina dela eta.



Aurreko oposizio batean kendu egin behar izan zuten udaltzain izateko gehieneko adina, Auzitegi Gorenak aginduta.

Suhiltzaileen, ertzainen, udaltzainen eta antzeko enplegatu publikoen kasuan asko dira erretiroa hartzeko adina aurreratu behar zaiela argudiatzen dutenak.

Oraingoan 64 urteko hautagaia oposiziotik kanpo utzi dute erretiroa hartzeko gutxieneko adina bete baitu.

Horrelako oposizioetan gainditu behar diren proba fisikoak nahikoak izan daitezke hautagaiak baztertzeko.

- Zer deritzozu udaltzainen oposizioan gertatutakoari? Eskubideen urraketa al da?
- Zeren arabera ezarri behar dira oposizioetan parte hartzeko baldintzak?
- Probak gainditzeak nahikoa izan beharko luke lanpostu publiko batean aritzeko?
- Erretiroa hartzeko adina aurreratzearen aldekoa zara zenbait lanetan? Zeinetan?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua


The logo consists of the letters 'IVAP' in a bold, magenta, sans-serif font. A thin, grey, horizontal brushstroke underline is positioned directly beneath the letters.

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa:** hutsuneak bete.

■ Irakurgaia: «Euskadiko Adikzioen Erakunde arteko Batzordea»

1.	B	2.	C	3.	A
4.	D	5.	C	6.	C
7.	A	8.	A	9.	C
10.	B	11.	D	12.	A
13.	B	14.	C	15.	D
16.	B	17.	A	18.	B

■ **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ Irakurgaia: «Merkatu kanibalean txiroen gorputzak salgai »

19.	B	20.	C	21.	C
22.	B	23.	A	24.	A
25.	C	26.	B		

■ **3. ariketa:** sartu testu zatia dagokion hutsunean.

■ Irakurgaia: «Arrakasta»

Hutsuneak	27.	28.	29.	30.	31.	32.	33.	34.
Testu zatiak	F	D	G	A	I	E	H	B

Soberakoa	C
-----------	---